

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
LURPEKO UREN OINARRIZKO KONTROL-SAREAREN
KUDEAKETA
(C02/002/2012 - I02/005/2014)**

2015EKO TXOSTENA

T-226/12



AURKIBIDEA

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK.	1
2.- LURPEKO UREN OINARRIZKO KONTROL SAREA.....	3
2.1.- AFORO-ESTAZIOTAKO KONTROLA.	4
2.2.- KONTROL PIEZOMETRIKOA.	6
2.3.- KALITATEAREN KONTROLA.	9
3.- NITRATOEN POLUZIOAREN AURREAN URRAKORRAK DIREN EREMUEN JARRAIPEN-SAREA.	16
4.- PESTIZIDEN OINARRIZKO SAREA.	19
5.- SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN KONTROL SAREA.	23
5.1.- GERNIKAKO AKUIFEROA.....	23
5.1.1.- KOROETENOEN KONTROLA.	23
5.1.2.- MERKURIOAREN KONTROLA.	27
5.2.- ITURBURUEN KONTROLA GALLARTAN.....	29
6.- EAE BARNEALDEKO HEZEGUNEEN EGOERA EKOLOGIKOARI ARRETA-SAREA.....	30
7.- ERLAZIONATURIKO AZTERKETEN INFORMAZIO GEHIGARRIA.	32
8.- LURPEKO UREN EGOERA KIMIKOA.	33

PLANOAK

1. planoa - Kontrol puntuen kokapena

ERANSKINAK

- A.1.- Oinarrizko Sarea: analitiken laburpena (2015)
- A.2.- Arreo lakuko eguneroko datuen laburpena (2015)

1.- SARRERA ETA AURREKARIAK.

1994ko maiatzaren 31ko Transferentzia Mixtoko Batzordearen akordioak, uztailaren 12an 297/1994 Dekretuaren bidez onartutakoa, baliabide eta garapen hidraulikoei buruzko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoraren (EAE) esku uzten ditu, Autonomi Estatutuaren bidez emandako kompetentzietan adostu bezala.

Honen ondorioz, EAEko Administrazioak eskumen eksklusiboa du erkidego barruko arroetan Plangintza Hidrologiaren garapena aurrera eramateko. EAEko Administrazio Hidraulikoak urteak daramatza ur-masa guztien eta bereziki EAEko lurpeko urei buruzko informazio garrantzitsua jasotzen.

1998an Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzak EAEko lur azpiko uren kontrol-sarearen zehazketa lanak eta martxan jartzea hasi zituen Energiaren Euskal Erakundearen lankidetzarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan hauetan parte hartzen du lurralde historiko honetan.

Ur Agentziak C02/002/2012 eta I02/005/2014 espedienteen bidez TELUR kontratatzen du, 2015 urterako, "Euskal Autonomia Erkidego lurpeko uren oinarrizko kontrol-sarearen kudeaketa" izeneko proiektuko lanak egiteko.

Proiektu honen funtsa EAEko lurpeko ur sareen mantentze, ustiapen eta kudeaketa lanak egitea da. Honek lurpeko-ur laginak hartu eta analizatzea (iturburuak eta zundaketak), ur-sorburuen kontrol foronomikoak egitea, zundaketen eta putzuen piezometria monitorizazioa egitea, instalakuntzen mantentzea eta datu-eskuratze sistemen kalibrazioa edo aldatzea barne hartzen ditu, beste zenbait lanen artean. Eskuratutako datuak tratamendu arretatsuen bidez lantzen dira, hutsuneak bete, behar izanez gero, eta informazioaren balioztapena egiten da.

Txosten honetan egindako lanak, baita datuen laburpenak, "<http://www.telur.es/redbas>" web orrialdean aurkitu daitezke.

Txosten honek **2015ean** zehar burututako lanak, bai eta jasotako datuak batzen ditu. Jasotako datu gehienak aldizka berritzen dira web orrialdean, beraz txostenaren helburuetatik kanpo geratzen da hauen deskribapen zehatza. Lan honi erantsitako DVDan jatorrizko fitxategiak, landutakoak eta balioztatutakoak daude, xehetasun handidunak (hamar minuturoko datuak).

Nahiz eta txosten honetan bildutako Oinarrizko Sarearen datuak 2015ekoak izan, lurpeko ur-masen izenei, arau-balioei eta atalase-balioei dagokionez, 2016ko urtarrilaren 8an onartutako 1/2016¹ Errege Dekretuko Plan Hidrologikoen berrikuspenak definitutakoak kontutan hartzen ditu.

Honako puntu hauetan zerrendatzen dira egindako lan ezberdin guztiak:

- ★ Lurpeko Uren Oinarrizko Kontrol-Sarea.
- ★ Nitratoen poluzioaren aurrean Gune-Kalteberaren jarraipen-sarea.
- ★ Pestiziden oinarrizko kontrol sarea.
- ★ Gernikako akuiferoaren zaintze-sare espezifikoa (VOC eta merkurioa).
- ★ EAEko barnealdeko hezeguneen egoera ekologikoari arreta-sarea.
- ★ Beste kontrol eta jarraipen batzuk (Gallarta, Lantarón, etabar).

Jarraian, puntu bakoitzean egindako lanen azalpena ematen da.




¹ [Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua](#), Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Hidrologikoen berrikuspena onartzen duena. [Euskal Agentziak itzulía](#).

2.- LURPEKO UREN OINARRIZKO KONTROL SAREA.

1998an EAEko Hidrometeorologi-infrastruktura bat bezala sortu zen. Hasieratik, aldagai hidrologiko garrantzitsuenak erregulatzea du helburu: zenbatekoa eta kalitatea zenbait puntu garrantzizkoenetan. Oinarrizko sarea izanik, aipaturiko puntu gehienak bigarren mailako sareen parte dira, helburu espezifikoak dituztelarik: ustiapenaren kontrola, kalitatearen kontrola, etabar. Bere helburu nagusia ez da aldagaien momentuko jarraipena, denboran zeharreko joeren ezaguera baizik.

Sareak Euskal Autonomi Erkidegoko Ur Masei loturiko iturburu eta zundaketa nagusien jarraipen kimiko eta kuantitatiboa egitea ahalbidetzen du. Sarea 3 atal edo berezitako kontrolez osatuta dago, instrumentazio eta metodologia desberdinekin:

Lurpeko Uren Oinarrizko Kontrol Sarea

Kontrol Mota	Kodigoa	Kontrol puntuak		
Foronomikoa		20 Puntu		
		Araba 7	Bizkaia 6	Gipuzkoa 7
Piezometrikoa		31 Puntu		
		Araba 13	Bizkaia 9	Gipuzkoa 9
Kalitatea		58 Puntu		
		Araba 23	Bizkaia 17	Gipuzkoa 18

TELUR-ek Oinarrizko Sarearen mantenu eta kontrol lan hauek Bizkaia eta Araban egiten ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak bertako puntuetako lanen ardura du bere gain eta TELUR, web orrialdean, datu horien harrera, integrazioa eta eguneratzea egiteaz arduratzen da soilik.

2.1.- AFORO-ESTAZIOTAKO KONTROLA.

Aforo-estazio gehienak emariaren kontrola egiteko diseinatu eta eraikita dauden isuribideak dituzte, honela berauen gastu-kurbak formula jakinen bidez zehazten dira, beren izaera eta sekzioaren arabera. Beste batzuk (Elgea, Arria-Patala, etabar.) sekzio naturalean dute oinarria, erreka mailan igoerak egon arren, sekzioaren egonkortasuna ziurtatuko duten zolaten edo presa txikien erabiliraz baliatuz. OSMA-1 eta OSMA-2 sekziona naturaldun estazioak dira, eta uda aldian landaretzaren hazkuntzak eragindako arazo ugari jasaten ditu. Gastu-kurbetan ematen diren aldaketak urte hidrologikoan zehar egindako errota bidezko aforo zuzenekin kontrolatzen dira.



2.1. irudia- SA16-Orue manantialeko aforo estazioa.


2.1 irudiak Orue iturburuaren aforo-estazioa erakusten du, isuribide errektangularra duena eta ur-hornidurako kaptazioan kokatua dagoena. Estazio bakoitzeko oinarriko ekipamendua honako hau da:

- 0-1 edo 0-2 m tarteko presio-transduttore piezoerresistibo edo kapazitiboa, 4-20 mA irteera-seinaleduna. Elikatze-kableak kapilare bat dauka presio atmosferikoaren orekatzea egiteko, beraz presio erlatiboaren neurketa ahalbidetzen du.
- Datuak jasotzeko ekipoa. Erregistraturiko datuak gordetzeko *Dataloggerrak*.
- Ekipoa elikatze sistema. Berun-gel bateria 12 VCC, 1,2 Ah, 6Ah edo 12Ah ekipoen, lekuaren eta kokapenaren arabera.
- Arazoak izan dituzten estazioetan, leku hotzetan kokaturikoak edota eguzki-intsolazio gutxikoak, ekipoa bikoiztuta dago eta batzuetan papelezko erregistrodun danbor horizontaleko limnigrafoa ere badaukate.
- Laguntza-ekipamendua: neurtzeko errepleta, ekipoa gordetzeko kutxak, etabar.

2015ean zehar ez da kontrol foronomikoko sarean punturik gehitu edo ezabatu.

SA04 – Nanclares iturburuko aforo-estazioan dataloggera eta GPRS bidezko datu -bidalketa egiten duen ekipamendua jarri da, honela ur-maila ia-ia denbora errealean kontrolatu daiteke.

2.1.1. taulan estazio bakoitzaren kokapena eta ezaugarriak adierazten dira:




Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur-masa	Izaera
SA01	PEÑACERRADA iturburua	522588	4721749	715	Inglares	Kantauri mendilerroa	Crump isuribidea
SA02	EL SOTO iturburua	539556	4719326	700	Ega	Kantauri mendilerroa	Isuribide hirukia
SA04	NANCLARES iturburua	515552	4740299	478	Zadorra	Subijanako kareharriak	Crump isuribidea
SA05	ZARPIA iturburua	557469	4737171	880	Ega	Urbasa mendilerroa	Crump isuribidea
SA06	OLALDE iturburua	528478	4799451	3	Oka	Ereñozar	Crump isuribidea
SA07	ARRIA-PATALA erreka	532153	4782352	248	Ibaizabal	Oiz	Zolata
SA08	URBELTZA iturburua	580794	4776301	256	Oria	Gatzume-Tolosa	Kanala
SA09	KILIMON erreka	550210	4788784	35	Deba	Izarraitz	Presa txikia
SA10	SALUBITA iturburua	572911	4774854	196	Oria	Gatzume-Tolosa	Crump isuribidea
SA11	Troyako ipar-arrapala	557568	4765052	350	Oria	Troya	Isuribide hirukia
SA12	ZAZPITURRIETA iturburua	574520	4765917	320	Oria	Aralar	Crump isuribidea
SA13	ELGEA erreka	539200	4754714	637	Zadorra	Altube-Urkillia	Presa txikia
SA14	ITURRIOTZ iturburua	479594	4791142	165	Aguera	Castro Urdiales	Isuribide errektangularra
SA15	LANESTOSA iturburua	469396	4788387	125	Karrantza	Alisa-Ramales	Presa txikia
SA16	ORUE iturburua	520069	4779175	225	Ibaizabal	Aramotz	Isuribide errektangularra
SA17	ARDITURRI iturburua	596573	4793017	135	Oiartzun	Mendigune paleozoikoak	Isuribide errektangularra
SA18	ARTZU Iturburua	596058	4804369	15	Bidasoa	Jaizkibel	Crump isuribidea
SA20	ALDABIDE iturburua	514407	4769870	785	Ibaizabal	Itxina	Isuribide errektangularra
SA21	OSMA-1 estazioa	494738	4748749	570	Omecillo	Losako kareharriak	Sekzio naturala
SA22	OSMA-2 estazioa	494881	4749935	580	Omecillo	Losako kareharriak	Sekzio naturala

2.1.1. taula - Lurpeko Uren Oinarriko Kontrol Sarearen kontrol foronomikorako puntuak.

2.1.2. taulan 2015ean zehar aforo-estazioetan baturiko datuak laburbiltzen dira. Estazio guztietako datu zehatzak, eguneroko batz bestekoak eta hamar minuturoko datuak, web orrialdean daude erabilgarri.

Ezaugarri bereziak dituzten estazio batzuk daude; ur hornikuntza, ureztapen edota ustiapen hidroelektrikorako hartunedunak, 2.1.2 taulan berezitasun hauek azaltzen dira.



Kod.	Bolumena (Hm ³ /año)	Bataz besteko Q (l/s)	Q maximoa (l/s)	Q minimoa (l/s)	Datu galera (egun)	Oharrak
SA01	22.39	720	19687	192	0	
SA02	3.52	112	215	54	57	
SA04	20.65	672	18484	40	13	
SA05	15.05	488	638	12	0	Ureztapena kontuan izan gabe, Zentral hidroelektrikoa kontuan izanda.
SA06	14.77	482	18462	3	1	Busturiako ur hornikuntza kontuan izan gabe.
SA07	9.93	322	176	21	0	Durangoko ur hornikuntza kontuan izanda.
SA08	10.87	345	557	152	0	
SA09	10.11	328	14496	0	0	
SA10	26.97	877	16922	74	0	
SA11	1.59	51	135	19	0	
SA12	17.51	563	4111	12	0	
SA13	7.21	235	7943	6	0	Ur hornikuntza kontuan izanda.

Kod.	Bolumena (Hm ³ /año)	Bataz besteko Q (l/s)	Q maximoa (l/s)	Q minimoa (l/s)	Datu galera (egun)	Oharrak
SA14	3.07	99	2576	9	0	Ur hornikuntza kontuan izan gabe.
SA15	13.35	433	26792	0	0	Ur hornikuntza kontuan izan gabe.
SA16	2.71	87	316	5	28	Ur hornikuntza kontuan izanda.
SA17	1.49	47	186	29	2	
SA18	1.63	52	1340	24	26	Ur hornikuntza gehituta eta kontuan izanda.
SA20	6.85	221	7343	0	0	
SA21	31.89	1032	12628	13	10	SA21-SA22 = Osma iturburua.
SA22	27.01	883	14970	0	0	SA21-SA22 = Osma iturburua.

2.1.2. taula - 2015ean zehar Oinarrizko Sarearen estazio foronomikoko datuen laburpena

20 aforo estazioetan emandako datuen galera 137 egunetara mugatzen da, datuen % 1,9 baino gutxiago.

2.2.- KONTROL PIEZOMETRIKOA.

Ur-mailaren kontrola ustiapen-zundaketa eta diametro txikiko piezometroetan egiten da. Normalean ekipamendua gordetzeko etxola bat dute alboan. Beste kasu batzuetan ur-hornikuntzarako eraikitzen diren instalazioak erabiltzen dira ekipamendua gordetzeko.



2.2. irudia- Kontrol piezometrikorako estazioa SP17-HERNANI zundaketa

2.2. irudian kontrol piezometriko instalakuntza adibide bat ageri da. Puntu guztien ekipamendua parekoa da:

- a) Presiozko transduktorea, piezorresistiboa edo kapazitiboa, maila ezberdinetakoak: 10, 20, 50

edo 100 m, 4-20mA seinaleduna. Elikatze-kableak kapilare bat dauka presio atmosferikoaren orekatzea egiteko, beraz presio erlatiboaren neurketa ahalbidetzen du.

- b) Datuak jasotzeko ekipamendua, datalogger-a, gutxienez 12.000 erregistroko ahalmenaz.
- c) Ekipoa elikatze sistema. Berun-gel bateria 12 VCC, 1,2 Ah, 6Ah edo 12Ahkoa ekipoaren, lekuaren eta kokapenaren arabera. Ur-hornikuntza egiten den puntuetan sarearen bidezko elikatzea egiten da, karga-tenporizadorez hornituak, gaintentsio batek eragindako istripuen probabilitatea gutxitzeko.

Ekipoak berrigatik aldatzen dira hondatu ahala. Hauek trinkoagoak izaten dira, transduktorea, datu hartzailea eta elikadura biltzen dute aparatu bakar batean, hauek 4-20 mAko seinalea derrigorrezkoa ez bada erabili daitezke. Era honetako ekipoek presio absolutuaren erregistroa egiten dute beraz ondorengoko konpentsazio barometrika beharrezkoa da, tenperatura ere neurtu eta erregistratzen dute. Sentsore hauek erabiltzeko tratamenduan egin beharreko lana handiagotzen du, hala ere hauen iraungarritasun handiak, uholdeen aurrean iraunkortasunak eta elektronikan kondentsazioa ekidin ahal izateak ekipo berri hauen erabilera handitzen du.

SP01 – Leza-A zundaketako ekipoaren matxura ondotik, instalazioa berritu da dataloggera eta GPRS bidezko datu -bidalketa duen ekipamendua jarritz.

2.2.1 taulan kontrol puntu bakoitzearen kokapena eta ezaugarriak laburbiltzen dira.




Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur masa	Izaera
SP01	LEZA-A zundaketa	529428	4715522	850	Ebro	Kantauri mendilerroa	Ur-hornikuntza
SP02	ORBISO-2 zundaketa	555424	4724278	565	Ega	Lokiz mendilerroa	Erabilerarik gabe
SP03	ARAIA-3 zundaketa	556649	4750731	830	Arakil	Aizkorri mendilerroa	Erabilerarik gabe
SP04	SUBIJANA-2 zundaketa	507885	4741243	526	Baia	Subijanako kareharriak	Piezometroa
SP05	ZIKUJANO-A zundaketa	545660	4733776	696	Ega	Urbasa mendilerroa	Ur-hornikuntza
SP06	OLALDE-B zundaketa	528788	4799870	39	Oka	Ereñozar	Ur-hornikuntza
SP07	MAÑARIA-2 zundaketa	528283	4776347	180	Ibaizabal	Aramotz	Piezometroa
SP08	OIZETXEBARRIETA-Abis zundaketa	532445	4784420	573	Ibaizabal	Oiz	Ur-hornikuntza
SP09	TOLE zundaketa	526523	4795636	6	Oka	Gernika	Ur-hornikuntza
SP10	ELDUA IEN-3 zundaketa	580919	4775966	295	Oria	Gatzume-Tolosa	Piezometroa
SP11	KILIMON-3 zundaketa	551296	4787659	59	Deba	Izarraitz	Ur-hornikuntza
SP12	ARKAUTE putzua	530769	4744551	516	Zadorra	Gasteizko alubiala	Ureztapena
SP13	SALBURUA-1 zundaketa	528619	4745002	511	Zadorra	Gasteizko alubiala	Piezometroa
SP14	OSMA-C zundaketa	494795	4749445	587	Omecillo	Salbada	Erabilerarik gabe
SP15	POBES (106-04) zundaketa	507853	4738749	537	Baia	Trebiñu sinklinala	Piezometroa
SP16	ANGOSTO (106-03) zundaketa	494310	4743305	531	Omecillo	Valderejo-Sobron	Piezometroa
SP17	HERNANI-C zundaketa	584289	4791419	6	Urumea	Andoain-Oiartzun	Erabilerarik gabe
SP18	LEGORRETA-5 zundaketa	565821	4772244	380	Oria	Sinklinorioa Bizkaia	Erabilerarik gabe
SP19	GALLANDAS-1 zundaketa	529104	4784384	276	Ibaizabal	Oiz	Piezometroa
SP20	ETXANO-A zundaketa	523988	4785954	217	Ibaizabal	Sinklinorioa Bizkaia	Ur-hornikuntza
SP21	ARALAR-P4 zundaketa	571214	4761406	365	Oria	Aralar	Erabilerarik gabe
SP22	DTH-1 zundaketa	557259	4765345	447	Oria	Troia	Piezometroa
SP23	LENDONÑO zundaketa	497131	4762336	332	Ibaizabal	Mena-Orduña	Erabilerarik gabe
SP24	JAIZKIBEL-5 zundaketa	594554	4802420	180	Bidasoa	Jaizkibel	Aurre Ur-hornikuntza
SP25	METXIKA-2 zundaketa	523142	4798206	301	Butroe	Sinklinorioa Bizkaia	Ur-hornikuntza
SP26	AGUAS FRIAS zundaketa	491609	4790016	122	Barbadun	Antiklinorioa hegoaldea	Erabilerarik gabe

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur masa	Izaera
SP27	NANCLARES-6 zundaketa	515390	4740877	515	Zadorra	Subijanako kareharriak	Piezometroa
SP29	ANDAGOIA (90-13-1) zundaketa	507688	4752194	588	Baia	Cuartango-Salvatierra	Erabilerarik gabe
SP30	CARRALOGROÑO (90-46-1) zundaketa	535656	4709708	569	Ebro	Laguardia	Erabilerarik gabe
SP31	MAKINETXE zundaketa	563272	4767002	182	Oria	Troia	Ur-hornikuntza
SP32	INURRITZA-3 zundaketa	568423	4793081	5	Oria	Zumaia-Irun	Piezometroa

2.2.1 taula - Lurpeko Uren Oinarrizko Kontrol Sarearen kontrol piezometrikoko puntuak

2015ean zehar ez da kontrol piezometrikoko sarean punturik gehitu edo ezabatu.

2.2.2 taulan 2015ean zehar kontrol piezometrikoko estazioetan baturiko datuak biltzen dira: Estazio bakoitzeko datu zehatzagoak, eguneroko batz bestekoak eta hamar minuturoko datuak, web orrialdean daude eskuragarri.



Kod.	Batz besteko maila (m)*	Kota (mimg)	Kota (mimg)	Kota baxuena(mi mg)	Maila altuena (m)	Kota altuena (mimg)	Urteko aldaketak (m)	Datu galera (egun)	Oharrak
SP01	11.64	838.36	29.93	820.07	11.16	838.84	18.77	0	Ur-hornikuntza
SP02	28.84	536.16	31.17	533.83	24.50	540.50	6.67	13	--
SP03	54.17	775.83	58.42	771.58	36.78	793.22	21.64	0	--
SP04	14.60	511.27	31.95	493.92	-1.18	527.05	33.13	0	--
SP05	12.16	683.59	33.07	662.68	-0.23	695.98	33.30	0	Ur-hornikuntza
SP06	30.49	8.51	37.37	1.63	24.93	14.07	12.44	0	Ur-hornikuntza
SP07	4.99	175.01	6.68	173.32	3.12	176.88	3.56	0	Ur-hornikuntza
SP08	90.98	482.02	107.56	465.44	76.95	496.05	30.61	0	Ur-hornikuntza
SP09	2.57	3.65	6.61	-0.39	0.15	6.07	6.46	0	Ur-hornikuntza
SP10	17.63	277.37	41.53	253.47	-14.45	309.45	55.98	0	--
SP11	6.00	52.67	8.47	50.20	-0.21	58.88	8.68	0	Ur-hornikuntza
SP12	1.89	514.11	3.71	512.29	0.65	515.35	3.06	0	Laginketa
SP13	1.22	509.78	1.92	509.08	0.29	510.71	1.63	0	Laginketa
SP14	16.26	570.74	20.67	566.33	0.04	586.96	20.63	13	--
SP15	31.96	505.04	44.25	492.75	4.87	532.13	39.38	0	Laginketa
SP16	-13.54	544.54	-3.69	534.69	-17.17	548.17	13.48	35	Laginketa
SP17	3.49	2.51	4.09	1.91	-1.03	7.03	5.12	0	Laginketa
SP18	-	Instalazio-apurketa (2015 Martxoa)			-	-	-	286	--
SP19	29.00	247.47	54.71	221.76	24.31	252.16	30.40	0	Ur-hornikuntza
SP20	33.42	184.58	77.74	140.26	6.73	211.27	71.02	18	Ur-hornikuntza
SP21	-48.65	413.65	-30.02	395.02	-99.00	464.00	68.98	34	--
SP22	24.23	307.77	27.37	304.63	21.50	310.50	5.87	0	--
SP23	24.44	307.56	29.23	302.77	21.62	310.38	7.61	1	--
SP24	35.74	144.26	38.35	141.66	35.00	145.00	3.35	87	--
SP25	13.59	287.41	26.66	274.34	-0.34	301.34	27.00	28	Ur-hornikuntza
SP26	3.15	118.85	3.68	118.32	2.51	119.49	1.17	0	--
SP27	26.77	487.97	30.45	484.29	17.30	497.44	13.15	0	Ur-hornikuntza
SP29	7.41	580.59	9.11	578.89	3.61	584.39	5.50	0	Laginketa
SP30	27.19	541.81	53.01	515.99	24.72	544.28	28.29	62	Laginketa
SP31	2.59	179.41	25.86	156.14	-0.25	182.25	26.11	41	Ur-hornikuntza
SP32	1.87	2.80	2.27	2.40	1.26	3.41	1.02	0	--

* Balio negatiboek berezko ur-irteera adierazten dute.

2.2.2. taula - Lurpeko Uren Oinarritzko Kontrol Sarearen kontrol piezometrikoko estazioko 2015ko datuen laburpena

31 maila piezometrikorako kontrol-estazioetan eman diren datuen galera 618 egunekoa da, datu guztien %5,5a. Datuetako hutsune batzuk zundaketetako ustiapen sistemetan egindako lanek eragindakoak dira, eta beste batzuetan ekipoen argi-hornikuntzan eta kontroletan izandako matxurek. 2015eko datu-galeren erdiak kasik, SP18 Legorreta 5 zundaketan izan dira, 2015eko martxotik aurrera datuak biltzeari utzi baitio inguruan egiten ari ziren mendi-lanek instalazioa apurtu dutelako.

2.3.- KALITATEAREN KONTROLA.

Kontrol hauen helburua EAEn dauden 56 kontrol-puntutako zenbait parametro fisiko-kimiko ezagutzea da. Kontrol-puntu hauek iturburu eta ustiapen zundaketetan daude kokaturik. Laginketa protokoloak kasu bakoitzaren arabera ezberdinak dira, iturburuetan laginketa zuzena egiten da, zundaketetan berriz punpaketa bidezkoa izaten da. Eroankortasun elektrikoa eta tenperaturaren neurketak, laginketa egiten den momentuan bertan egiten dira. Laginak era egokian etiketatu eta babesten dira, ondoren laborategira bidaltzeko. Laginen bolumena nahikoa izaten da, behar izanez gero, analisia errepikatu ahal izateko.

2.3.1 taulan kalitate kontrol puntu bakoitzeko egoera eta ezaugarriak laburtzen dira.

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur-masa	Izaera
SC01	URIZAHARRA iturburua	523566	4721541	715	Inglases	Kantauri Mendilerroa	--
SC02	EL SOTO iturburua	539556	4719326	700	Ega	Kantauri Mendilerroa	--
SC03	LEZA-A zundaketa	529428	4715522	850	Ebro	Kantauri Mendilerroa	Ur-hornikuntza
SC04	ORBISO-2 zundaketa	555424	4724278	565	Ega	Lokiz Mendilerroa	Laginketa
SC05	SOBRON-1 zundaketa	490666	4734457	525	Ebro	Valderejo-Sobron	Berezko ur irteera
SC06	ARAIA iturburua	556474	4750856	780	Arakil	Aizkorri mendilerroa	Ur-hornikuntza
SC07	NANCLARES iturburua	515382	4740577	500	Zadorra	Subijanako kareharriak	Ur-hornikuntza
SC08	SUBIJANA zundaketa	509006	4741046	528	Baia	Subijanako kareharriak	Ur-hornikuntza
SC09	ZARPIA iturburua	555913	4738071	880	Ega	Urbasa Mendilerroa	--
SC10	ZIKUJANO-A zundaketa	545660	4733776	695	Ega	Urbasa Mendilerroa	Ur-hornikuntza
SC11	OLALDE iturburua	528743	4799541	39	Oka	Ereñozar	Ur-hornikuntza
SC12	MAÑARIA-A zundaketa	528283	4776347	181	Ibaizabal	Aramotz	Ur-hornikuntza
SC13	OIZETXEBARRIETA-A z.	532445	4784420	574	Ibaizabal	Oiz	Ur-hornikuntza
SC14	VEGA zundaketa	526562	4795553	6	Oka	Gernika	Ur-hornikuntza
SC15	URBELTZA iturburua	580794	4776301	263	Oria	Gatzume-Tolosa	Erabilera industrial
SC16	KILIMON zundaketa	550725	4788227	40	Ebro	Izarraitz	Ur-hornikuntza
SC17	SALUBITA iturburua	572389	4775030	120	Oria	Gatzume-Tolosa	Erabilera industrial
SC18	TROYA (iparraldeko mehatze ahoa)	557568	4765052	350	Oria	Troia	--
SC19	ZAZPITURRIETA iturburua	574464	4765241	320	Oria	Aralar	Ur-hornikuntza
SC20	HAMABITURRI iturburua	560505	4787305	50	Urola	Gatzume-Tolosa	Ur-hornikuntza
SC23	SALBURUA-1 zundaketa	528619	4745002	511	Zadorra	Gasteizko alubiala	Laginketa
SC24	POBES (106-04) zundaketa	507853	4738749	537	Baia	Trebifur sinklinala	Laginketa
SC25	ANGOSTO (106-03) zundaketa	494310	4743305	531	Omeçillo	Valderejo-Sobron	Berezko ur irteera/ Laginketa

SC

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur-masa	Izaera
SC26	ITURRIOTZ iturburua	479594	4791142	165	Ibaizabal	Castro Urdiales	Ur-hornikuntza
SC27	LANESTOSA iturburua	469396	4788387	125	Karrantza	Alisa-Ramales	Ur-hornikuntza
SC28	LATXE erreka	586978	4788022	54	Urumea	Mendigune paleozoikoak	--
SC30	HERNANI-C zundaketa	584313	4791417	6	Oria	Andoain-Oiartzun	Laginketa
SC31	LEGORRETA-5 zundaketa	565821	4772244	240	Oria	Sinklonoria Bizkaia	Laginketa
SC32	ETXANO-A zundaketa	523988	4785954	217	Ibaizabal	Sinklonoria Bizkaia	Ur-hornikuntza
SC33	ARALAR-P4 zundaketa	571214	4761406	365	Oria	Aralar	Laginketa
SC34	MAKINETXE zundaketa	563272	4767002	175	Oria	Troia	Ur-hornikuntza
SC35	ORUE iturburua	520069	4779175	225	Ibaizabal	Aramotz	Ur-hornikuntza
SC36	ALDABIDE iturburua	514407	4769870	785	Ibaizabal	Itxina	--
SC37	GRAZAL iturburua	495419	4784842	130	Ibaizabal	Antiklinoria hegoaldea	--
SC38	LA TETA iturburua	497347	4760399	400	Ibaizabal	Mena-Orduña	Ur-hornikuntza
SC39	ARDITURRI iturburua	596573	4793017	135	Oiartzun	Mendigune paleozoikoak	Drenaje mina
SC40	ARTZU iturburua	596058	4804369	15	Bidasoa	Jaizkibel	Ur-hornikuntza
SC41	METXIKA-2 zundaketa	523142	4798206	323	Oka	Sinklonoria Bizkaia	Ur-hornikuntza
SC42	BENERAS iturburua	540968	4770014	330	Deba	Antiklinoria hegoaldea	Ur-hornikuntza
SC43	AGUAS FRIAS iturburua	491609	4790016	125	Barbadun	Antiklinoria hegoaldea	Erabilera industriala
SC44	URBALTZA iturburua	542996	4762170	350	Deba	Arantzazu	Ur-hornikuntza
SC45	GORBEA iturburua	520991	4761342	690	Zadorra	Gorbea	Ur-hornikuntza
SC46	ZUAZO iturburua	508645	4746855	560	Baia	Cuartango-Salvatierra	Ur-hornikuntza
SC47	OSMA iturburua	494949	4749171	578	Omecillo	Losako kareharriak	--
SC48	IGORROIN iturburua	549192	4736616	805	Ega	Urbasa Mendillerroa	--
SC49	ONUEBA iturburua	537477	4715239	645	Ebro	Laguardia	--
SC51	KIMERA putzua	508523	4802219	13	Butroe	Antiklinoria Iparralde	Ur-hornikuntza
SC52	POZOZABALE iturburua	504334	4799092	75	Ibaizabal	Sinklonoria Bizkaia	Ur-hornikuntza
SC53	ANDAGOIA zundaketa	507688	4752194	588	Baia	Cuartango-Salvatierra	Laginketa
SC54	UGARANA iturburua	538550	4756631	717	Zadorra	Altube-Urkilla	Ur-hornikuntza
SC55	LA MUERA iturburua	499628	4761876	270	Ibaizabal	Mena-Orduña	--
SC56	INURRITZA-3 zundaketa	568423	4793081	5	Oria	Zumaia-Irun	Laginketa
SC57	GRANADAERREKA iturburua	566799	4783992	231	Urola	Gatzume-Tolosa	Arrain-haztegia
SC58	OSINBERDE iturburua	571354	4761011	478	Oria	Aralar	Erabilera industriala
SC59	GALLANDAS-A zundaketa	529102	4784382	276	Ibaizabal	Oiz	Ur-hornikuntza
SC60	CARRALOGROÑO zundaketa	535656	4709708	569	Ebro	Laguardia	Laginketa

2.3.1. taula- Lurpeko Uren Oinarrizko Kontrol Sarearen kontrol piezometriko puntuen laburpena

Puntu bakoitzean bi hilabeteroko laginketa egiten da, hala ere analisi baten emaitzak horrela gomendatuz gero edo Ur Agentziak erabakiz gero, hilabeterokoa izatera pasa daiteke. Orain arteko ohitura jarraituz, aurrerantzean ere laginketak, puntuak txandakatuz egingo dira, erdiak hil bikoitietan aztertuko dira eta beste erdiak bakoitietan. Bi hilabeteko analitketan hurrengo parametroak zehazten dira: Kaltzioa, Magnesioa, Potasioa, Bikarbonatoak, Karbonatoak, Kloruroak, Nitratoak, Nitritoak, Sulfatoak, Amonioa, Eroankortasun elektrikoa 20°Ctara, Ortofosfatoak, pHa, permanganatoarekiko oxidagarritasuna eta disolbaturiko solido guztiak.

Urtean behin, agorraldian, puntu bakoitzean analitika berezia egiten da, bertan, normalean egiten direnaz aparte, hurrengo zehazketak egiten dira: Arsenikoa, Kadmioa, Merkurioa, Beruna, Oxigeno

disolbatua, Tetrakloroetenoa eta Trikloroetenoa.

Oinarrizko Sarearen analitika fisiko-kimikoak URIKER laborategietan egiten dira, ENAC-ek kreditaturikoa eskatutako zehazketarako. Gipuzkoako laginak Fraisoroko Nekazaritzan Eskolako laborategian aztertuak izan dira.

URIKER eta Fraisororen elementu bakoitzerako metodologia analitikoak, detekzio mugak eta erresoluzioak ondorengo hauek dira:

2.3.2 taula- Uriker eta Fraisoro laborategiek erabilitako metodo, muga eta erresoluzioa:

	Parametroa	Unitatea	Metodoa	Detekzio muga
1	Kaltzioa	mg/l Ca ⁺⁺	ICP/MS ICP/MS edo ICP/OES	0.1 5
2	Magnesioa	mg/l Mg ⁺⁺	ICP/MS ICP/MS edo ICP/OES	0.1 0.5
3	Potasio	mg/l K ⁺	ICP/MS ICP/MS edo ICP/OES	0.1 0.5
4	Sodioa	mg/l Na ⁺	ICP/MS ICP/MS edo ICP/OES	0.1 0.5
5	Bikarbonatoak	mg/l HCO ₃ ⁻	Potenziometri-balorazioa Bolumetria	6 5
6	Karbonatoak	mg/l CO ₃ ⁼	Iragazketa eta 180°C-tan lehortzea Bolumetria	3 5
7	Kloruroak	mg/l Cl ⁻	FCS (solorzano) ura HPLC	1 5
8	Nitratoak	mg/l NO ₃ ⁻	HPLC (Kromatografia ionikoa) HPLC	0.04 0.5
9	Nitritoak	mg/l NO ₂	Ur-kolorimetria Espec. Molecular	0.02 0.01
10	Amonioa	mg/l NH ₄ ⁺	FCS (Solorzano) Molekula espek.	0.05 0.05
11	Sulfatoak	mg/l SO ₄ ⁼	HPLC (kromatografia ionikoa) HPLC	3 5
12	Eroankortasuna	µS/cm	Laborategi-konduktimetria Konduktimetria	20 5
13	pH	Unidad pH	Ur-potenciometria Elektrodo Selektiboa	3 1.7
14	Fosforoa	µg/l P ₂ O ₃	ICP/MS Molekula espek.	10 50
15	Oxid. (KMnO ₄)	mg/l O ₂	Permanganato Bolumetria	0.25 -
16	Dis. solido guztiak	mg/l	Grabimetria Grabimetria	200 Z.G.
17	Artsenikoa	µg/l	ICP/MS ICP/MS	0.5 1
18	Kadmioa	µg/l	ICP/MS ICP/MS	0.25 0.5
19	Merkurioa	µg/l	ICP/MS AA term eta amalg.	0.1 0.2
20	Beruna	µg/l	ICP/MS ICP/MS	1 1
21	Oxigeno dis.	O ₂ asetasun %	Oxigeno-elektrodoa	0.2 Z.G.
22	Trikloroetilenoa	µg/l	HS-GC/MS PyT-GC-MS	0.1 0.5
23	Tetrakloroetilenoa	µg/l	HS-GC/MS PyT-GC-MS	0.1 0.5

HPLC: Erresoluzio altuko kromatografia likidoa. ICP/MS edo ICP/OES: Plasma-espektrofotometria egokitua.

2015ean Oinarrizko Sarean 375 analitika kimiko egin dira, hauetariko 108, Fraisoron eta besteak Uriker laborategian.

2015ean hartutako laginen emaitza analitikoak, datu historikoak, bai eta hauen balio estatistikoak (bataz bestekoak, maximoak eta minimoak) Ur Agentziaren Web orrialdean daude eskuragarri (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/informazioa/azken-txostenak/u81-0003342/eu/#603.html>). 2015ko analitiken emaitzak A1 eranskinean biltzen dira, baita serie historiko osoaren batez besteko balioak, minimoak eta maximoak ere.

8.1 irudian 2006-2015 aldiko eta sareko puntu bakoitzarendako, 1/2016 Errege Dekretuko atalase-balioak gainditzen dituzten lagin kopurua ageri da.

Orokorrean, analizaturiko parametro guztiak balio normalen barruan aurkitzen dira. 2015ean detektaturiko anomaliak ondoren azaltzen dira; batzuk aurreko urteetan emandakoen parekoak dira.

① Nitratoak eta amonioa.

Modu puntualean, zenbait laginen nitrito eta amonio edukiek legeak ezarritako mugak gainditzen dituzte.

Mañaria-A zundaketako (**SC12**) iraileko laginak amonio edukian (0,84 mg/l) 1/2016 Errege Dekretuak ezarritako atalase-balioa 0,5 mg/l gainditzen du.

Modu berean, La Muera iturburuko (**SC55**) uztaileko laginak muga hau gainditzen du 1,13 mg/l edukiarekin.

Carralogoño zundaketan (**SC60**), aurreko urteetan ez bezala, 2015ean hartutako 6 laginek 0,5 mg/l amonio edukia gainditzen dute, 0,83 eta 1,98 mg/l edukietan mugituz. Apirileko lagina, 1,98 mg/l amonio edukiarekin, serieko maximo historikoa da (2.3.1 irudia). Amonioaren behin eta berrizko agerpenak zundaketaren inguruan noizbehinka egiten diren gorotz pilaketekin erlaziona daiteke.

Pobes zundaketako (**SC24**) urtarrileko eta iraileko laginek, 0,81 eta 1,74 mg/l nitrito-edukia erakusten dute hurrenez hurren, edateko uren kalitatea arautzen duen legediak ezarritako muga (0,5 mg/l) gaindituz. Agorraldi egoeran, eta Baias ibaian ur emari eskariarekin, zundaketa honetako uraren kalitatearen okertzea antzematen da, nitrato eta nitritoen edukieren handiagotze nabarmenarekin (2.3.1 irudia).

Lanestosa iturrian (**SC27**), 2015ean hartutako lagin bat berak ere ez du nitrito edo/ta amonio edukiarentzako edateko uren gaineko legediak (140/2003 Errege Dekretuak) ezarritako muga gainditzen. Historikoki muga hau gainditu duten gertaera bakanak (2008-2013) inguruko abelazkuntzarekin eta eurite biziarekin erlazionatu izan dira (2.3.1 irudia).

② Sulfatoak eta kloruroak.


SC14-Vega zundaketa, **SC15**-Urbeltza iturburua eta **SC51**-Kimera putzuko laginek sulfatoaren potabilitate muga (250 mg/l) gainditzen duten edukiak dituzte, jatorri naturala duen Keuper garaiko igeltsuekin erlazionaturik (2.3.2 irudia).

SC55-La Muera puntuan ematen da muturreko kasua, kaltzio sulfatotan aberatsa izanik, sodio kloruro balioak ere oso altuak dira, eta 2015eko laginek 18.200 $\mu\text{S/cm}$ gainerik eroankortasuna erakusten dute. Maiatzako laginak aurtengo sulfato (2.891 mg/l) eta kloruro (7.500 mg/l) maximoa erakusten du.


SC18-Troya puntuan ere sulfatoaren edukia beti 250 mg/l gainerik dago. Eduki hauek orain dela hainbat urte itxitako meatzeen aktibitatearekin erlazionaturik dago eta beheranzko joera garbia erakusten du.

Inurritza-3 (**SC56**) puntuak ere sodio kloruro eta kaltzio sulfato kontzentrazio altuak erakusten ditu, kasu hau Zarauzko kuaternarioko akuifero detritikoan ematen diren ur gazizko intrusioekin erlazionatzen da.

SC60-Carralogoño zundaketan harturiko ur-laginek izaera sulfatatu sodikoa erakusten jarraitzen dute, eta ur-masa honetarako 1/2016 Errege Dekretuak ezarritako atalase-balioak gainditzen dituzte, sulfatoarena (4077 mg/l) otsaileko laginek eta kloruroena (704 mg/l) apirila, abuztua eta urriko laginek. Honek, zulaturiko aro tertziarioko material ebaporitikoekin izandako kontaktuak eragindako kimismoa duten urak direla egiaztatzen du.




2.3.1. irudia Konposatu nitrogenatueta bilakaera historikoa SC60, SC24 eta SC27 puntuetan.



2.3.2. irudia - SC14-15-18-51-55-56 eta 60 kontrol puntuetako sulfatoen bilakaera historikoa.

3 Metal astunak.

SC18-Troya puntuan 2015ean hartutako lagin guztiek erakutsi dute artsenikoan $10 \mu\text{g/l}$ gaineko edukia, baina guztiak ur-masa honetarako 1/2016 Errege Dekretuak ezarritako atalase-balioaren azpitik daude ($80 \mu\text{g/l}$). Azken urtetako joera era bat beheranzkoa da (2.3.3. irudia). Puntu hau, behin meatzetako punpatzeak bukatuta, akuiferoaren gainezka-puntu bihurtu da.



2.3.3. irudia- As-aren bilakaera Troyan (SC18) eta Cd eta Pb elementuena Arditurrin (SC39).

SC39-Arditurri puntuak, izen bereko meatzeko drenai galeriak, maiz kadmio eta berun maila altuak erakusten ditu, bertako aitzinako meatze-jardueraren isla; 1/2016 Errege Dekretuak ezartzen dituen atalase-baliotik gertu ($15 \mu\text{g/l}$ Pb-ntzako eta $10 \mu\text{g/l}$ Cd-ntzako).

SC51-Kimera puntuan, lehendabiziko aldiz erregistro historikoan, 1/2016 Errege Dekretuak merkurioarentzako ezarritako atalase-balioa (0,5 mg/l) gutxigatik gaitzen duen lagina (0,6 mg/l) ageri da.

3.- NITRATOEN POLUZIOAREN AURREAN URRAKORRAK DIREN EREMUEN JARRAIPEN-SAREA.

2015ean nitrato jarraipen sare honen barruan hurrengo puntu eta kontrol motak egiten dira:

- ★ **Urteroko laginketa.** Normalean abenduan egiten da eta nitratoak soilik analizatzen dira. 3 sektoretako (Ekialdea, Dulantzi eta Mendebaldea) 27 puntutan batzen dira normalean lagin hauek, baina aurrean azkenean 24 batu dira, Forondako laginketa (SN35) ez baita egin kontrol-puntura sartzeko arazoak izan direlako eta SN18 Arbulo drainatzea eta SN38 Astegieta puntuak lehor zeudelako.
- ★ **Bi hilez behingo laginketa.** 8 puntutan egiten da SC21, SC22, SC23 eta SCN1-5. SC21, SC22, SCN3 eta SCN4 puntutan hilabete bakoitietan eta gainontzekoetan hilabete bakoitietan. SC23 puntua Lurpeko Uren Oinarrizko Kontrol-Sarearen barruan aurkitzen da. Gainontzekoak Gasteizko lurpeko ur-masaren kontrol espezifikorako puntuak dira. Hauetan, nitrato edukiaz aparte, ondorengo parametroen analisia ere egiten da: Kaltzioa, Magnesioa, Potasioa, Sodioa, Bikarbonatoak, Karbonatoak, Kloruroak, Nitritoak, Sulfatoak, Amonioa, Eroankortasun elektrikoa 20°Ctara, Ortofosfatoak, pHa, permanganatoarekiko oxidagarritasuna eta disolbatu-rikiko solido guztiak.
- ★ **Hiru hilez behingo laginketa:** Bi puntutan (SN28 eta SN29) egiten da eta soilik nitrato edukia analizatzen dira.

Aipaturiko puntu hauez gain, Gasteizko ur-masatik kanpo dauden beste 4 puntu ere badaude kontrol sare honetan, Trebiñu Sinklinal eta Kantauri mendilerroa izeneko ur-masetan kokatzen dira.

Puntu hauek guztien artean iturburuak, errekek, zundaketak eta putzuak daude. Azken hauen artean batzuek ez daukate punpaketak egiteko ekipamendu propiorik, beraz punpaketa-ekipo mugikorrek erabiltzen dira laginketa egiteko.

3.1. taulan, kontrolatzen diren puntuak zerrendatzen dira eta 1. planoan Gasteizko ur-masako kontrol-puntuen kokapena.

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Eremua	Laginketa mota
SC21	ARKAUTE putzua	530774	4744492	517	Gasteiz ekialdea	Bi hilekoa
SC22	ILARRATZA iturburua	532908	4745279	522	Gasteiz ekialdea	Bi hilekoa
SC23	SALBURUA-1 zundaketa	528624	4745006	511	Gasteiz ekialdea	Bi hilekoa
SCN3	Eskalmendi	529113	4747241	510	Gasteiz ekialdea	Bi hilekoa
SN2	Errekalehor	528476	4741830	545	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN3	Santo Tomas-Otazu	530415	4742329	540	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN5	Errekabarri-Aberasturi	533027	4741730	561	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN6	Zerio-Argandoña erreka	533910	4743037	541	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN7	Alegria Oreitian	535993	4744931	531	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN8	Angostaile	532274	4746949	521	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN9	Betoñoko Baltsa	528641	4745489	510	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN10	Zurbanoko Baltsa	529793	4745512	502	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN13	Zurbano	531409	4746601	519	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN14	Oreitia	536066	4744905	536	Gasteiz ekialdea	Urterokoa

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Eremua	Laginketa mota
SN15	Elburgo	537245	4744205	544	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN16	Arbulo	535376	4746900	530	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN17	Junguitu	532888	4746440	519	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SN18	Arbulo drainatzea	534170	4746914	533	Gasteiz ekialdea	Urterokoa
SCN1	Los Chopos - Gauna	541267	4741220	611	Gasteiz Dulantzi	Bi hilekoa
SCN2	Alegria Gazetan	538929	4743422	558	Gasteiz Dulantzi	Bi hilekoa
SN22	Arganzubi-1	539365	4744277	564	Gasteiz Dulantzi	Urterokoa
SN23	Añua-1	537869	4743019	559	Gasteiz Dulantzi	Urterokoa
SN24	Soria	538881	4740344	630	Gasteiz Dulantzi	Urterokoa
SN25	Nemesto	537855	4739949	643	Gasteiz Dulantzi	Urterokoa
SCN4	Lopidana	523844	4748092	509	Gasteiz mendebaldea	Bi hilekoa
SCN5	Ullibarri	519472	4746481	509	Gasteiz mendebaldea	Bi hilekoa
SN28	Antezana Iturburu	522468	4748583	511	Gasteiz mendebaldea	Hiru hilekoa
SN29	Zandazar-1	519469	4744858	499	Gasteiz mendebaldea	Hiru hilekoa
SN30	Venta Caída	523473	4750746	521	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN31	Fuente Vieja Foronda	522308	4750103	510	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN32	Legarda	521787	4748830	514	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN33	Fuente Vieja Arangiz	524016	4748474	510	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN34	Otaza	520897	4745702	507	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN35	Foronda	522743	4749376	521	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN36	Mendiguren Ibaia	524567	4747125	508	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN37	Zayas Ibaia	519516	4744694	500	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN38	Astegieta	521537	4745225	502	Gasteiz mendebaldea	Urterokoa
SN50	Navarrete	539011	4720582	692	Kantauri mendilerroa	Urterokoa
SN51	Caicedo	500285	4733495	561	Trebiñu sinklinala	Urterokoa
SN52	Leciñana	501355	4732310	540	Trebiñu sinklinala	Urterokoa
SN53	Salcedo	503018	4731258	520	Trebiñu sinklinala	Urterokoa
<i>Sarean sarturik. Gasteizko ur-masatik kanpo</i>						

3.1. taula - Nitrato Kontrol Sareko kontrol-puntuak.

Nitrato Kontrol Sare honetako datu guztiak ondorengo web orrialdean daude: <http://www.telur.es/redbas/nitratos>. Bertan orain arteko urteroko jarraipen-txosten guztiak (1998-2015) daude ikusgai.

Informazioa ez errepikatzearen, txosten horren ondorioak baino ez ditugu aipatuko.

Ekialdeko sektorean, laginketako kontrol-puntu batek ere ez, ez du 50 mg/l nitrato edukia gainditu eta denborazko bilakaerak beheranzko joera orokorra erakusten jarraitzen du.

Dulantzi sektorean 2005eko beheranzko joera mantentzen da. 2014an antzemandako igoera arinak ez du joera hau eten. Sektore honetan ezta ere, ez dago 50 mg/l nitrato edukia gainditu duen kontrol-punturik.

Mendebaldeko sektorearen kontrolak, egoera okerrera du eta ez du oraindik joera garbirik erakusten. Analitikek orokorrean urte arteko aldakortasun nabaria erakusten dute, nahiz eta aurreko aldakortasun txikiagoa erakutsi. Bi-hiru hileko laginketako Antezana (SN28) eta Lopidana (SCN4) puntu-kontrolak, 50 mg/l nitrato edukia gainditzen duten laginak badituzte. Bestetik, urtean behin laginketa egiten den puntuetatik bakarrik Legarda (SN32) iturburuak gainditzen du 50 mg/l-ko edukimuga.

2015 urte naturalean, batez besteko prezipitazioa baino zertxobait gehiago egin du, nahiz eta horren erdia kasik (%49a) lehenengo bi hilabeteetan gertatu. Gainerako hilabeteak kontutan hartuz gero (martxo-abendua), 2015ean egin duen prezipitazioa batz bestekoa baino %33 txikiagoa da. 2015eko prezipitazioaren banaketa honek, ia-ia agorraldia urteko 9 hilabetera luzatzen duenak, lortutako emaitzetan nolabaiteko eragina izan dezake.


Nitrato-edukiak Gune Kalteberaren inguruan beheranzko joera izaten jarraitzen du. Joera hau nabariagoa da Ekialdeko sektorean Dulantzi sektorean baino. Beste aldetik, Mendebaldeko sektoreak beheranzko joera txikiagoarekin, aurtan, nitrato-eduki apalagoak erakusten ditu eta batez ere aldakortasun txikiagoa.

Bukatzeko esan, Gasteizko ur-masatik kanpoko puntuetan (3.2 taula), aurtan iazko laginketarekin alderatuz, beheranzko joera ageri da, nabariagoa SN51 eta SN52 puntuetan. SN52 eta SN53 puntuetan nitrato edukiek 50 mg/l atalase-balioa gainditzen dute, aldiz, SN51 puntuan, aurreko urteetan ez bezala, atalase-balioaren azpitik daude edukiak. SN50 puntuak jarraitzen du 50 mg/l mugaren azpitik edukiak mantentzen.

Zbk.	Izena	2006 Abe-12	2007 Abe-18	2008 Abe-12	2009 Abe-22	2010 Abe-13	2011 Abe-15	2012 Abe-05	2013 Abe-3	2014 Abe-4	2015 Abe-1
SN50	Navarrete	71.6	63.4	51.0	63.0	74.7	49.2	38.0	37.0	40.0	29.6
SN51	Caicedo	96.0	60.2	67.0	56.0	60.3	45.9	---	58.0	70.0	43.0
SN52	Leciñana	84.4	69.2	73.4	64.0	89.5	67.6	77.0	80.0	100.0	83.7
SN53	Salcedo	77.8	74.0	56.8	70.0	40.1	65.4	54.0	59.0	60.0	53.6

Gorria: balioa >50 mg/l Laranja: balioa 25-50 mg/l artean

3.2. taula - Gasteizko ur-masatik kanpoko nitratoen emaitzak.



3.1. irudia - SN50-51-52-53 kontrol puntuetako nitratoaren bilakaera historikoa.

4.- PESTIZIDEN OINARRIZKO SAREA.

Pestiziden Oinarrizko Sarearen helburua, nekazari-eremutatik ur-korrontearen norantzan, 817/2015² Errege Dekretuan preferente, lehentasunezko eta arrikutsu-lehentasunezko substantzi modura identifikaturiko pestizidek eragindako kontaminazioa zaintzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoan Pestiziden Oinarrizko Sarea nekazal eta abere-guneetatik hurbil dauden puntuetan ezartzen da, hauek baitira, nekazaritza estensibo-tekniken ondorioak pairatzen dituzten puntuak.

Sarearen laginketa sistematikoak 2008an hasten dira aukeraturiko 29 kontrol-puntutan. Urtero bi kanpaina egiten dira (udaberriaren eta neguan). honela detekziorako momentu egokienak aprobetxatzen direlarik. Bi profil analitiko ezberdin analizatzen dira, nekazal produktu konkretutan agertzeko duten probabilitatearen arabera.

4.1 taulan pestiziden kontrol-puntu bakoitzaren kokapena eta ezaugarriak ageri dira.

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur masa	Analitika
SC06	ARAIA iturburua	556474	4750856	780	Arakil	Aizkorri mendilerroa	1 profila
SC17	SALUBITA iturburua	572389	4775030	120	Oria	Gatzume-Tolosa	1 profila
SC19	ZAZPITURRIETA iturburua	574464	4765241	320	Oria	Aralar	1 profila
SC20	HAMABITURRI iturburua	560505	4787305	50	Urola	Gatzume-Tolosa	1 profila
SC26	ITURRIOTZ iturburua	479594	4791142	175	Ibaizabal	Castro Urdiales	1 profila
SC27	LANESTOSA iturburua	469396	4788387	125	Karrantza	Alisa-Ramales	1 profila
SC32	ETXANO-A zundaketa	523988	4785954	217	Ibaizabal	Sinklinorioa Bizkaia	1 profila
SC36	ALDABIDE iturburua	514407	4769870	785	Ibaizabal	Itxina	1 profila
SC38	LA TETA iturburua	497347	4760399	400	Ibaizabal	Mena-Orduña	1 profila
SC39	ARDITURRI iturburua	596573	4793017	135	Oiartzun	Mendigune paleozoikoak	1 profila
SC44	URBALTZA iturburua	542996	4762170	350	Deba	Arantzazu	1 profila
SC51	KIMERA putzua	508523	4802219	13	Butroe	Antiklinorioa iparraldea	1 profila
SC52	POZOZABALE iturburua	504334	4799092	75	Ibaizabal	Sinklinorioa Bizkaia	1 profila
SC54	UGARANA iturburua	538550	4756631	717	Zadorra	Altube-Urkilla	1 profila
SC01	PEÑACERRADA iturburua	523566	4721541	715	Inglares	Kantauri mendilerroa	2 profila
SC09	ZARPIA iturburua	555913	4738071	880	Ega	Urbasa mendilerroa	2 profila
SC22	ILARRATZA iturburua	532908	4745281	522	Zadorra	Gasteizko alubiala	2 profila
SC23	SALBURUA-1 zundaketa	528619	4745002	511	Zadorra	Gasteizko alubiala	2 profila
SC46	ZUAZO iturburua	508645	4746855	560	Baia	Cuartango-Salvaterra	2 profila
SC47	OSMA iturburua	494949	4749171	578	Omecillo	Losako kareharriak	2 profila
SC48	IGOROIN iturburua	549192	4736616	805	Ega	Urbasa mendilerroa	2 profila
SC49	ONUEBA iturburua	537477	4715239	645	Ebro	Laguardia	2 profila
SCN1	Los Chopos	541294	4741192	610	Zadorra	Gasteizko alubiala	2 profila
SCN5	Ullibarri	519472	4746481	502	Zadorra	Gasteizko alubiala	2 profila
SF30	Navarrete	538955	4720604	690	Ega	Kantauri mendilerroa	2 profila

² [1817/2015 Errege Dekretua](#), irailaren 11koa, lurgaineko uren egoerari jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitateko arauak ezartzen dituena

Kod.	Kontrol-puntua	X ETRS89	Y ETRS89	Z	Arroa	Ur masa	Analitika
SF31	Caicedo	500285	4733495	570	Ebro	Trebiñu sinklinala	2 profila
SF45	Canal de la Balsa Vitoria	529784	4745544	510	Zadorra	Gasteizko alubiala	2 profila
SF46	Carravalseca	535868	4709025	561	Ebro	Laguardia	2 profila
ARR-E	ArreoEntrada	501347	4736435	680	Ebro	Trebiñu sinklinala	2 profila

4.1. taula- Pestizida Kontrol Sarearen Kontrol Puntuak.

1 motako profil analitikodun puntuak urtean behin (2015ean maiatzan) aztertzen dira, hauek isurialde Kantauriarrean kokaturik daude. 2 profil analitikodunak urtean birritan aztertzen dira (maiatzan eta azaroan), hauek isurialde Mediterraneoan kokatzen dira.

2015ean Pestiziden Oinarritzko Sarearen analitikak Labaqua laborategietan egin dira, eskatutako zehazketak ENACek kreditaturik. Ezarritako profil analitiko bakoitzaren parametroak, metodo analitikoak eta detekzio mugak 4.2. taulan ageri dira:

4.2. taula- Metodoak, detekzio mugak eta pestizida analitiken ziurgabetasuna.

Konposatua	CAS zenbakia	1 profila	2 profila	Metodo analitikoa	Kuantifikazio muga (µg/L)	Ziurgabetasuna % (K=2)
2, 4 D	94-75-7		X	LC-MS/MS (1)	0.1	29
3, 4 dicloroanilina	95-76-1		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.08	30
Alacloro	15972-60-8		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.02	31
Aldicarb	116-06-3		X	LC-MS/MS (1)	0.03	25
Aldrin	309-00-2	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	29
alfa-HCH	319-84-6	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
Atrazina	1912-24-9	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.02	32
beta-HCH	319-85-7	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	26
Clopiralida	1702-17-6		X	LC-MS/MS (1)	0.1	30
Clorfenvinfos	470-90-6		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.02	29
Clorpirifos	2921-88-2		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
Suma DDT	50-29-3	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
O,P'-DDT	--	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
P,P'-DDT	50-29-3	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	32
P,P'-DDE	72-54-8		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	30
P,P'-DDD	53-19-0		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	29
Lindano	58-89-9	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	29
Prometryn	7287-19-6		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
delta-HCH	319-86-8	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.05	28
Deltametrin	52918-63-5		X	LC-MS/MS (1)	0.5	29
Desetilatraxina	6190-65-4		X	LC-MS/MS (1)	0.5	30
Diclofop	51338-27-3		X	LC-MS/MS (1)	0.03	24
Dieldrin	60-57-1	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.005	29
Difenoconazol	119446-68-3		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	30
Endosulfan I	115-29-7		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.05	30
Endosulfan II	115-29-7		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.02	31
Endosulfan Sulfato	1031-07-8		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	29
Endrin	72-20-8	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.005	28
Etofumesato	26225-79-6		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.1	30
Glifosato	1071-83-6	X	X	ELISA (3)	0.3	40
Haloxifop	72619-32-0		X	LC-MS/MS (1)	0.1	30
Heptacloro	76-44-8	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
Heptacloro epox	1024-57-3		X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	27
Isodrin	465-73-6	X	X	SBSE--TD-GC-MS (2)	0.01	31
Isoproturon	34123-59-6		X	LC-MS/MS (1)	0.03	22
MCPA	94-74-6		X	LC-MS/MS (1)	0.1	21
Mecoprop	93-65-2		X	LC-MS/MS (1)	0.1	30
